


BALIO PROPOSAMENA

Lau kideetako talde bat gara, gurek helburua jendeari egunerokoan etxeko lanetan denbora aurrezteka da eta horretarako tresna bat sortu dugu. Bertan garbigailua, lehorgailua eta plantxagailua elkartuta daude. Goiko zatian garbigailua, erdian lehorgailua eta ezker aldean plantxagailua.

Honek arropa garbitzeko, lehortzeko eta plantxatzeko aukera ematen digu. Lehenik arropa garbitzen du, jarraian arropa lehorgailura automatikoki bidaltzen du eta azkeneko pausoa eskuz egin beharreko da, hau da arropa hartu eta plantxagailuan jarri.



Lehenengo pausoa programazio baten bitartez bere barnean dauden mekanismoengatik arropa bira egiten du, eta bi zatia lotzen dituen "tranpila" bat automatikoki irekitzen da. Horren bitartez bigarren zatira (lehorgailura) bidaltzen du arropa guztia.

Prozesu bakoitza zehaztu duzun denboraren arabera izango da.

Plantxagailua armairu normal baten itxura du eta bertan arropa pertxekin jartzen badugu botoiari eman, eta 7 minututan dena plantxatuta egongo da.

Produktuaren tamaina ez dezala kezka bat izan! Gure produktua zuen etxeetan duzuen lekuarekin moldatu dezakegu.

Neurketa batzuk izan behar dira kontuan (bi mota):

- minimoa, 2 m-ko zabalera eta maximoa 1,80m-ko altuera.
- maximoa 2,50m-ko zabalera eta 2m-ko altuera.

Gure produktua erostea oso aukera ona da, denentzat lagungarria delako, eta gainera denbora aurrezteko balio duen metodo bat delako. Horrek beste gauzetan denbora inbertitzea eragiten du beraz denbora falta duten pertsonak interesa eduki ditzakete gure produktuan.

Gure produktua, egunerokoan egiten dugun ekintza bat erraztu egiten du. Modu banatuan egitea ohituta gaude eta, produktu honekin batera egin dezakegu. Gure produktua, garbigailutik lehorgailura automatikoki bidaltzen du eta eskuz egin behar den pauso bakarra, lehorgailutik plantxagailu armairura eramatea da. Beste guztia, automatikoki egingo du.

Produktua zuen etxeetara eraman dezakegu eta guk instalatu etxean, gainera gure harremana oso gertukoa da. Produktua zuzenean erosi nahi bazenute gure fabrikara joan beharko zinateketen.